

Galesera helduei irakasten

Elwyn Hugues

Hasi aurretik, hitz gutxi batzuk esan nahi dizkizuet galeseraz nire ama-hizkuntzaren ideia bat har dezazuen.

Hona etortzeko egin zenidaten gonbidapena ohore handia izan zen niretzat; berehala onartu nuen, zuen euskarazko irakaskuntzaren eraginkortasuna oso ezaguna baita Galesen. Hitzaldiaren izenburua ikusi nuenean, ordea, “Kurrikulu Berrikuntzak”, arduratu egin nintzen. Hemen egin duzuen aitzindari-lanaz dakidanagatik, susmoa daukat, Galesen orain berritzailetzat duguna, zuek duela hainbat urte erabiltzen, baina beste metodo berritzaileago eta eraginkorrago batzuek ordeztu zenutela aspaldi. Zuengandik ikasteko askoz ere gehiago daukat nik, zuek nigandik baino; beraz barkatuko dizkidazue hemen esango ditudanak, zuentzat, oso jakinak eta zaharkituak badira. Orain, helduei galesera irakastean Galesen kontuan hartzen ditugun hainbat arlori buruz, modu praktiko eta zehatz batean, bi hitz egiten saiatuko naiz; hemen esandakoak hausnarketarako aitzakia emango ahal dizue jardunean aurrera zoazten neurrian.

Gales

Gure herrialdeak 3 milioi lagun inguru ditu, Ingalaterraren aldamenean dago eta komunikabide nagusiek Ekialdetik Mendebaldera, eta ez Iparretik Hegora, zeharkatzen dute. Ipar-Ekialde osoa eta Hegoaldeko zati handi bat oso industrializatuta egon dira, baina orain gainbehera ekonomiko nabarmena jasaten ari dira. Iparraldea eta Mendebaldea oso menditsuak dira, bertan nekazaritza da nagusi; baina azken mende honetan bertako biztanleria asko murriztu da eta turismotik bizi da orain. 1980ko hamarkadan, ingeles ugari eta tankera guztietakoak etorri ziren inguru hauetara, langabetuak, jubilatutak, lanera joateko bidaiatu behar izaten zutenak; denak edertasun izugarritzko paraje natural baten bila edo oporretako etxea bertakoek ordaindu ezin duten prezio batean erostera.

Galeseko hizkuntza

1991ko erroldaren arabera, Galesen bizi diren milioi erdi lagunek inguru, biztanleriaren %18ak daki galeseraz. Ehuneko horrek behera egin du mende honetan, baina azken hogeitaz eutsi egin dio eta goranzko joera erakusten hasi da. Ehuneko hori aldatu egiten da, zer esanik ez, inguru batetik bestera: herri handienetan ez da %10era iritsiko, baina Ipar-Mendebaldeko hainbat herritan %80tik gorakoa izan daiteke. Adinaren arabera ere aldatu egiten da noski; pozgarria da 3 eta 15 urte bitarteko neska-mutilen %32ak galeseraz dakiela ikustea. Eskoletan

galeseraren lehia hasia da emaitzak ematen, baina erronka, orain, hizkuntza ikasgeletatik ateratzea, eguneroko bizitzan erabil dadin lortzea eta erabilera normalizatzea da.

Gure hizkuntza etxe-girora eta erlijiora egon da tradizionalki mugatuta eta estatus txikia, edo hutsala, izan du hezkuntzan, agintaritzan, negozioetan, etab... Hala ere, hirurogeiko hamarkadan, presio-taldeen eraginez, galeserarekiko interes-indartze bat gertatu zen, hizkuntza politika-gai bilakatu zen eta beste hainbat lorpen ere eskuratu ziren, hala nola galeserazko hezkuntzaren sorrera, agiri ofizialetan hizkuntza bien erabilera, galeserazko telebista-katea, lanpostuetan hizkuntza aintzat hartzea; nahiz eta arlo horietan aurrerapenak egiteko diru-laguntzak hutsaren hurrengo izan. Hizkuntzarekiko kontzientzi indartze eta hizkuntzaren estatus-handitze horrek galesera gero eta jende gehiagok ikasi nahi izatea ekarri du. “Galeserari buruzko akta” lege bihurtu zen 1993an eta haren inguruan egin zen publizitateak galeserarekiko interesa lantokietan ere indartzea ekarri zuen, akta bera askok uste baino dezentez ahulagoa den arren! Galesko Biltzarra 1999an sortzen denean, bultzada handia emango zaio hizkuntzari, Biltzarrak berak legeak onartzeko edo zergak biltzeko gaitasunik izango ez badu ere.

Hizkuntzaren estatusak gora eginagatik, ama-hizkuntza galesera duten galestar askorengan hizkuntza erabiltzeko konfidantzarik eza nabarmentzen da, hizkuntza txikiekin sarri gertatzen den bezala. Ezezagunekiko lehen hitza beti ingelesez, inprimakiak betetzerakoan nahiago dute ingelesez, galeseraz hitz egitean ere ingelesezko maileguak barra-barra, eskualde desberdinetako dialektoak zeharo desberdinak iruditzen zaizkie eta galesera ikasten ari direnen galderen aurrean mila zalantza dituzte; galeserako ikasleak txukun hitz egin arren, galeseradunak beste dialekto bat dela edo galesera jaso dela esan, eta ingelesez erantzungo dio. Hizkuntzak ikastea zaila da, baina hizkuntza txikien kasuan, hizkuntza gelatik kanpo ezin erabiltzea da, askotan, aurrera egiteko oztoporik handiena.

Galesera hizkuntza zeltikoa da. Indoeuroparra denez, ez da inguruko hizkuntzekiko horren desberdina euskara den bezala, baina hala ere zerikusi gutxi du ingelesarekin eta hizkuntza erromanikoekin. Hona hemen hainbat ezaugarri:

a Oinarrizko esaldiak egitura hau du: Aditza-Subjektua-Objektua

b Hitz-hasierak aldatu egiten dira sistema konplexu baten arabera:

aita	=	tad
nire aita	=	fy nhad
zure aita	=	dy dad
haren aita	=	ei thad

c Galeserak ez du “bai” esateko hitz bakar bat; galderaren formaren arabera da erantzuna (hona hemen hainbat adibide, ingelesez)

Are you ready (Prest zaude)? I am
Did they win (Irabazi zuten)? They did

Will the meeting be here
(Bilera hemen izango da)? It will be
On Monday (Astelehenean)? Indeed

Arlo batzuk zail samarrak dira eta praktika handia eskatzen dute. Ahoskera, aditza eta esaldien joskera bezalako beste arlo batzuk, aldiz, nahiko errazak dira.

Galeserako ikasleak

Ikasleak bi talde desberdinetan multzoka daitezke. Inguru industrialetan, galesera ikasten ari diren helduak bertakoak izaten dira normalean eta, askotan, guraso edo aitona-amona galeseradunak izaten dituzte, baina “munduan ibiltzeko” ingelesa behar zela eta, ez zieten irakatsi. Heldu horietako askok, galeraz konturatuta eta hizkuntza berreskuratu nahian, seme-alabak galeseraz irakasten den eskoletara bidaltzen dituzte. Helduak arrazoi sentimentalak izaten dituzte, “sustraiak” eta abar, galesera ikasteko, baina hizkuntzaren estatus ofiziala handiagotzen doanez, arrazoi ekonomikoak ere lekua hartzen hasi dira. Ikasle heldu horiek abantaila handi bat dute, ahoskera eta arau gramatikal batzuk ezagunak zaizkie dagoeneko; bizi diren inguruan, ordea, zaila gerta dakieke mintzapraktika egiteko galeseradunik aurkitzea. Nekazaritza-eremuetan, aldiz, galeserako ikasleak kanpotarrak dira gehienetan, galeseraz tutik ere ez dute jakiten eta ahoskera-arau oinarritzkoena ere zaila zaie; hala ere, etengabe entzuten dute inguruan galeseraz eta, integratzeko dela, arrazoi ekonomikoengatik dela, ikastera animatzen dira.

Ahozko hizkuntza da ikaslearen premiarik handiena. Eguneroko egoeretan hitz egitea eta ulertzeko gauza izatea da kontua. Hori dela eta, galeserazko liburuetan kaleko hizkera islatu nahi izaten dugu, hizkera estandarra goragoko mailetarako utzita. Ikasgaiak lekuan lekuko dialektoa erabiliz idaztea ez da erabaki erraza, eta ikasleek ere muzin egin diezaieke lagunarteko hizkera ikasteari. Baina, esan dugun bezala, galeseradunak galesera-ikasleekin eroso sentitzea oso garrantzitsua da. Horri dagokionez, hizkuntz nagusien ikasliburu asko baino aurreratuago gaudela esango nuke, haiek hizkuntza ofiziala baino ez baitute irakasten. Kanpotarrentzako ingeles-ikastaroetan, adibidez, “Erreginaren ingelesa” irakasten zaie oraindik ere, bizi diren inguru pobreetan horrelako ingeles-mailarik sekula entzungo ez dutela jakin arren; horrek bertakotzea bi aldiz zailagotzen die. Gure metodoan, kaleko hizkeran hitzak nola jaten eta laburtzen ditugun ere erakusten diegu. Gure artean egon zen ikasle frantses batek “I can go” eta “I can’t go” ahozko ingeles-esaldi ezin aruntagoak bereiztea oso zaila zitzaiola aitortu zigun, eta inongo ikastarotan ez ziotela inoiz bereizten irakatsi. Gure ikastaroetan, aldiz, hasieratik ematen diegu entzungo dituzten kontrakzioen berri; horrela ulermena ikaragarri hobetzen dute eta horrek integratzen laguntzen die.

Horiek horrela, hizkuntzaren estatus ofiziala hobetu eta erabilera handitu denez, galeseraz hitz egiten betidanik jakin dutenen aldetik ere, idazten ikasteko eskaera gero eta handiagoa ari zaigu iristen, egoera formal samarretan konfiantza falta igartzen dutelako. Orain, beraz, premia horiei erantzuteko baliabideak ari gara sortzen.

Galesera-ikastaroen gastuei aurre egiteko gobernuaren laguntza daukagu neurri batean, baina ikasleen matrikula-sariarekin ere kontatu behar dugu; horrek lanak ematen dizkigu, izan ere, ikastaroei eusteko diru-sarrerak lortzea ez baita nahikoa, ikasleak ez uxatzeko ere prezioak ahalik eta merkeen mantentzen saiatu behar baitugu. Lantokietako ikastarotan enpresaren kontura izaten dira, normalean, gastu guztiak. Gobernuaren laguntza txikia da oso: helduen galesera-ikastaroen eremuan 25 langile egun osoz eta 20 egun-erdiz baino ez ditu; 18.000 ikasle ingururen premiei erantzuteko eta milioi lagun inguruko merkatu potentzial bati (haiengana iristeko baliabiderik bagenu) aurre egiteko. Apenas dugun baliabiderik ikerketa-, garapen- eta marketing-arlorako.

Ikastaroa

Baliabide gutxi izanarren ikastaro-egitura txukuna osatu dugu; parte-hartzaile bakoitzak gatzaren zati bat du eta ikasleek, aurrerapen handia egiteaz gain, aukera bat baino gehiago egin dezakete bidean. Ikastaro gehienak unibertsitate eta ikastetxeek ematen dituzte, baina hizkuntz eskolek eta boluntario-taldeek ere hainbat jarduera burutzen dituzte. Eskualde bakoitzean jarduten duten talde guztiek tokiko erakunde baten barruan egiten dute lan, eta ikasleak eskuratzeko lehia, gurean ere, handia den arren, normalean, elkarrekin lan egiten saiatzen gara eskualdeak programa biribildu bat izan dezan. Hona hemen nire eskualdeko erakundearen egituraketa:

Unibertsitateak. Hasi berrientzako ikastaro trinkoak (2-5 saio astean), azterketa gainditzera zuzendutako goi-mailako ikastaroak (4.-6. maila).

Ikastetxeak. Hasi berrientzako astean behingo ikastaroak, 2, 3 eta 4. mailara artekoak.

Hizkuntz eskolak. 12 egunetako, 5 egunetako edo asteburu osoko ikastaro trinkoak, barnetegi gisakoak normalean.

Boluntario-taldeak. Galeseraz hitz egiten duen jendea giro informal batean ezagutzeko gizarte-jarduerak.

Galeseradunen erakundeak. Betidanik galeseraz hitz egin, baina konfiantza falta duten galestarrei galesera formala irakasteko ikastaroak

Programa bere osotasunean argitaratu ohi dugu, horrela ikasleak, dagoen eskaintza eta dituen beharrak ikusita, hoberen egokituko zaion erakundera jo dezan. Elkarrekin ere lan egin izan dugu unibertsitate eta ikastetxetan erabiltzen diren ikasliburuak ikasgai eta egituretan bat etor daitezen, ikasleak, egoera aldatu zaielako edo, sistema batetik bestera erraz aldatu ahal daitezen. Gaur egun, urrutiko ikasmateriala (posta bidezko ikastaroak, telebista bidezko hizkuntz ikastaroak...) eta ikasgelan irakasten zaiona bateragarriak izan daitezen ari gara ahaleginetan.

Hauexek dira nire erakundean urteko programa prestatzean kontuan hartzen ditudan oinarritzko arau batzuk:

1 Maila guztietako ikastaro-aukera zabala eskaini behar dugu, gure eraginpeko eskualdean bizi den edonork modu zentzuzko batez eskuratzeko moduan.

- 2 Aukera desberdinak eskaintzeak ikastaldi batzuk herri handietan eta beste batzuk nekazaritza-herri txikietan antolatzea ekarri ohi du.
- 3 Eskaintzak zabala izan behar du, ahalik eta egoera pertsonal gehienei erantzuteko modukoa: ikastaroak goizean, bazkalorduan, arratsaldean, astean bitan, astean bostetan, udazkenean hasita, udaberrian hasita...
- 4 Hasi berrientzako ikastaroak, urtez urte, zentro batean baino gehiagotan eskaini behar dira, ikasle berriak erakartzeko eta galesera etxe ondoan ikasteko aukera emateko.
- 5 Hasi berrientzako ikastaro bat inguru jakin batean ezartzen bada, ikastaroak hurrengo lauzpabost urteetan eskola berean jarraipena izan dezan konpromisoa hartzen dugu, jarraitasuna eta lorpena bermatzeko.

Ikastaro-hasiera eta helburu- ezarpena

Antolatzaile naizen aldetik, ikastaro guztien lehenengo eskolara joan ohi naiz ikastaroaren nondik norakoak aipatu eta bertan zer aurkituko duten azaltzera. Ikasle batzuek itxaropen handi samarrak ekartzen dituzte eta ikastaroaren helburuak eta benetan egin ditzaketen aurrerapenak, hasiera-hasieratik, argi eta garbi adierazten ez bazaizkie, desilusia har dezakete gero. Azpimarratu egiten diet, gainera, ikasi eta praktikatzeko garaian ahalegina egitea beraiei dagokiela; arrakasta beraien erantzukizuna baita. Horrekin batera, eskola-saio bat eman ohi diet erabiliko dugun irakaskuntz metodoa ezagut dezaten, bai eta hainbat arau ere, hala nola “zergatik” tankerako galderarik sekula ez egitea: ama-hizkuntzan ez dakite gauzak honela edo horrela zergatik esaten diren, entzundako ereduak kopia eta moldatu baino ez dute egiten, egin dezatela berdin galesera ikasterakoan. Lehen saioa amaitutakoan, nahi duenak ikastaroa egiteko izena eman eta matrikula ordain dezake; ikusi eta entzundakoa egatik norbaitek, arrazoiak arrazoi, ikastaroa komeni ez zaiola erabakitzen badu, inolako konpromisorik gabe alde egin dezake. Horrela, geratzen diren guztiek ikastaroaren egitura ulertu eta onartzen dutela, eta helburuekin bat datozela ziurtatzen dugu.

Lehen saio hori ingelesez eman ohi diet; ondoren, alde egin ohi dut ikasgela tutore-taldearen esku utzita. Joan aurretik, hala ere, hainbat asteren buruan bisitan etorriko natzaiaela ohartarazten diet, dakidan ingeles guztia erabat ahaztuta etorri ere. Itzultzen naizenean, ikasleekin galeseraz bi hitz egitea oso esperientzia pozgarria izaten da, bai beraientzat baita niretzat ere: aste batzuk lehentxeago ez genuen elkarri ingelesez hitz egin beste aukerarik; eta orain, oso maila xumean bada ere, galeseraz hitz egiteko gauza gara. Eragin bera dute, gogo-berogarri dira, talde desberdinetako ikasleak elkartuz noizean behin, larunbat batzuetan, antolatzen ditugun saioek. Iluntze batzuetan, gainera, lagunartea osatu ohi dugu taberna-giroan, garagardoa ere lagun ona baita gogo pizteko. Gobernuari ikusarazi nahian nabil aspaldian hizkuntzak ikasteko alcohola zeinen garrantzitsua den, garagardo-gastuetan lagun diezagun, baina alferrik!

Ikastaroak lantokietan antolatzen ditugunean, mintzalagunaren sistema erabili ohi dugu ikasle bakoitza lankide galeseradun batekin parekatuz.

Galeserako ikasleek nahiz galeseradunek gaintitu behar izaten duten trabarik handiena, ingelesaren bidez elkar ongi ezagutzen dutelarik galeseraz mintzatzen hastea izaten da: denok dakigun bezala, norbaitekin hizkuntza bat erabiltzen ohituta egon eta beste bat erabiltzen hasiz gero, hizkuntza horietan edozein jarotasun izanda ere, lagun horrekiko harremana aldatu egiten da. Gaur egun, Llangefni herriko posta bulegoko langileekin ari naiz lanean. Zortzi lagun dira; horietatik seik galesera dute ama-hizkuntza eta galeseraz hitz egiten dute beti elkarrekin. Beste biak oso ikasle onak dira, baina urduri samarrak: ez dute zailtasun handirik bezeroen eguneroko eskariei erantzuteko eta lankideen jardunaren mamia ulertzeko gauza dira; alabaina, lankideek ingelesez hitz egiten diete beti eta, ikasleetako bat taldera biltzen denean, jardunaren hizkuntza aldatu eta ingelesez hasten dira, gizalegezkoa delakoan. Inglesera aldatu beharrik ez dagoela adierazten diegun arren, ezin da errotutako ohitura bat gauetik egunera aldatu. Hizkuntzarekiko jokabide hori zuzentzeko ondoko prozedura erabili ohi dugu:

- 1 Ikasle bakoitzari mintzalagun bat jartzen diogu; mintzalagunaren eta ikaslearen lanak oso gertukoak ez izaten saiatzen gara lana presio eta presa handiko egoeretan egitea egokitzen zaienean ingelesez egiteko premia saihestearren.
- 2 Ikasleak, mintzalagunak eta hirurok bilera bat egiten dugu hasieran haien arteko akordio bat hitzartzeko. Akordioaren gaiak, hauexek:
 - a Elkar aurkitzen dutenean, egoera edozein delarik ere, ez dute elkarrekin galesera ez den beste hizkuntzarik erabiliko.
 - b Astean hamar minutuz, gutxienez, elkarrekin hitz egiteko ardura hartuko dute lanari buruz edo norberaren gauzei buruz luze mintzatzeko (hizketa-gaiak ditut, beharrez gero).
 - c Ikasleak ez du mintzalaguna irakaslea balitz bezala hartuko, eta ez dio galdera gramatikalik egingo (galeseradunak larritu egiten dira horrekin).
 - d Mintzalagunak ez du ikaslea ikasletzat hartuko, eta ez dizkio okerrak zuzenduko (ulertzen diozula ikusteak ematen dion konfidantza zuzentasun gramatikala baino garrantzitsuagoa da; konfidantzak hizkuntza maizago erabiltzera bultzatuko du, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiagotan zuzenduko du bere burua).
 - e Ikasleak zerbait ulertzen ez badu, mintzalagunak behar bestetan errepikatuko dio esaldia, eta behar badu parafrasi bidez adieraziko dio; azken baliabide bezala, ingelesez hitz bakarra esango dio. Ikasleak aurrenekoan ulertu ez duela ikusita, galeseradun gehienak ingelesera pasatzen dira.
- 3 Bi hilabete inguru igaro ondoren, egoeraren azterketa egiten dugu; galeseraz hitz egiteko ohitura sustraitu dela, eta lagun biek, hizkuntza hori bide dela, harremana sendotu dutela ikusten badugu, beste mintzalagun bat aukeratzen zaio zikloari berriro ekiteko. Hortik aurrera, ikasleari galeseraz hitz egiten entzutea horren arrunta egingo zaienez

besteei ere, hizkuntza aldatuko dute konturatu gabe. Horrela gertatzen ari da, behintzat, Llangefniko posta-bulegoan.

Tutore-trebakuntza

Ni bezalako tokian tokiko koordinatzaileak arduratzen gara eskolak eta praktika-saioak planifikatu eta kontrolatzeaz, nahiz lantegiarekiko loturak ezartzeaz. Irakasle gisa ere zertxobait jardun ohi dugu, esperientzia eta informazioa zuzenean jasoz eta programaren eraginkortasuna ikusiz tutore-trebakuntza modu praktiko eta eraginkorrago batez burutzeko. Irakasle-lana, ordea, denboraldi baterako eta beharren arabera, egun erdiz kontratatutako tutore batzuek egiten dute. Haur txikiak dituztelarik orduakako lana behar duten emakumeak dira asko, garaia baino lehen jubilatatu diren batzuk ere badira, eta azkenik, gurekin izandako esperientzia positiboa ikasle berriei iristarazi nahian etortzen zaizkigun ikasle-ohiak ere baditugu. Tutore-taldea, beraz, oso prestakuntza eta gaitasun desberdineko lagunek osatzen dute, eta askok, lan honetan, “denboralditxo” batez baino jarduten ez dutenez, taldea berritu egiten da etengabe. Nire lanaren zati handi bat tutore horiek trebatzean datza, eta aldian behin, tutore berri nahiz ibiliekkin bilerak egiten ditut trebetasunak garatu, kalitatea zaindu eta sortu diren arazoak eztabaidatzeko. Bilerak gehienak ikasliburuko unitateak lantzen, ikasgai bereziak planifikatzen eta, ikasleek bikoteka nahiz taldean lan egin dezaten, ariketa praktikoak eta berrikuspen-ariketak prestatzen joaten zaizkigu. Horren osagarri, tutoreak elkarren eskolak ikustera joan daitezten biziki animatzen ditugu: nik beti ikasten dut zerbait, baita tutorerik berrienarengandik ere. Trebakuntza-programaren barruan hona hemen egin ohi ditugun hainbat jardura:

- 1 Tutoreei eskola bat eman ohi diegu, erakusgarri gisa, ezagutzen ez duten hizkuntza batean, ikaslearen egoera gertuagotik ikus dezaten. Horrek badu, ordea, desabantaila txiki bat, izan ere, hizkuntza ezezagun horretan entzundakoak gogoratzen horrenbesteko ardura jartzen dutenez, oharkabea joaten baitzaizkie erabiltzen ditugun metodoak. Hala ere, saioa oso erabilgarri zaie eserialdi batean ikasleak zein gutxi beregana dezakeen ikusteko. Esperientzia gutxiko tutoreek material pila bat erabiltzeko joera izaten dute, ikasleei, aspertuko diren beldurrez, gako-esaldiak errepikatzeko eta finkatzeko nahikoa denbora eman gabe. Saioa erabilgarri izaten zaie, baita ere, irakasteko eredia noizean behin aldatzearen (tutore-lanetik talde- edo bikote-lanera, adibidez) garrantziaz konturatzeko, eta gaitasun desberdineko ikasleekin lan egiterakotan bikote-lanaren baliagarritasunaz ohartzeko, aukera ematen baitu ikasle saiatuei laguntza gehigarria eskaintzeko, ikasle aurreratuei euren neurrian exijitzeko eta banakoen galderei erantzuteko.
- 2 Irakasteko modu “egoki” bakarra ez dagoenez, goikoa bezalako eskola erakusgarriekin nola irakatsi nahi duten tutoreek beraiek aztertu eta balora dezaten nahi izaten dugu, metodo hori harako hura baino hobea dela geuk esan ordez. Ikasgai berri bat jorratu behar dugunean, adibidez, zalantza bat izaten dugu beti abiapuntu, hots, zer da hobe lehenengo esaldia *ikustea* edo, idatzita ikusi aurretik, *entzutea*. Ikasle askori ezinezkoa egiten zaie hitz bat gogoratzea idatzita ikusi ez badute, baina

hitza idatzita ikusteak ere ondorio okerrak ateraraz diezaizkieke, ahoskerari dagokionez adibidez, eta ikusi izateak hitza gogoratzen dutela sinestarazi ere egin diezaieke. Tutoreak trebatzeko ikastaro batean ondoko esperimientua egin nuen behin: errumanierazko zerbait irakatsi nien, baina arbela ikaskideen bi herenak ezin ikusteko moduan eta beste herenak ikusteko moduan ezarrita. Arbela ikusi ezin zuten bi herenetatik bati idatzita eman nion ikasgaia aldeztu aurretik, irakatsi behar nizkien esaldiak irakurtzeko denbora izan zezaten. Arbela ikus zezaketenentzat banan-banan idatzi nituen esaldiak ozenki irakurtzen nituen bitartean; hirugarren taldeak entzundakoaz bakarrik baliatu behar izan zuen. Ondorioak ez ziren erabakiorrak izan eta ez nuen izatea espero: ikaskide batzuk oso gustura zeuden egokitu zitzaizen taldean, besteek aldiz beste talderen batean egotea nahiago zuten. Ikaskide guztiek ondorio bera atera zuten (eskerrak, hori baitzen helburua!) norbanako bakoitzak ikasteko bere modua eta bere trebetasunak dituela, alegia. Tutore garen aldetik, hala ere, ikasgaiak prestatzen ditugunean trebetasun guztientzako baliabideak eskaintzen ari garela egiaztatzea behar dugu.

3 Tutoreak trebatzeko saioetan beste estrategia hau ere erabili izan dut: hainbat tutoreri erabiltzen ikusi, baina nire ustez desagokiak diren hainbat teknika erabiliz, eskola bat eman tentuz aukeratutako talde aktibo bati. Tutoreek nabarmendutako okerrak aztertu eta alderatzen dituzte. Horren ondoren, eskola bera modu egokiago batez ematen saiatzen naiz, eta iritzia eskatzen diet. Oso sistema baliagarria da tutoreek nork bere puntu ahulak eta sendoak ebalua ditzaten, baina niretzat arrisku handiko jarduera izan daiteke, tutoreek irakasteko modu “oker” horrek niretzat “egokia” den beste hark baino emaitza hobea ematen dituela pentsa baitezakete! Tutoreak benetako eskolak ematen ikustera etortzen zaizkidanean, trebakuntza-saioetan gaitzetsi ditudan jokabide horiek berak hartzen ikus nazakete. Hauexek dira irakasteko modu “oker” horretan sartuko nituzkeen jokabideak:

- a** Eskola eserita ematea.
- b** Irakastea galesera ez erabiltzea.
- c** Ikasgai berria azaltzeko orduan hitz gramatikal zailak erabiltzea (ikasle askok, gazteek batez ere, ez dute eskolan gramatika tradizionala ikasi).
- d** Ariketa ikasle guztiei errepikaraztea, baina beti ordena berean, ezkerretik eskuinerantz eta azken ilaran dagoen ikasletik hasita, adibidez.
- e** Itzulpen-arietak ikasleaz ikasle eginaraztea, hainbat esaldi bizkor eta elkarren segidan itzularaziz.
- f** Bikote-lana ematea egin behar dutena aurrez adibidez azaldu gabe; denbora zer egin behar duten argitzen joango zaie, egiten joan ordez.
- g** Egitura eta hitz berriak dituzten berrikuspen-arietak zailak prestatzea; egiten baino azaltzen joango baita denbora gehiago.

- h Ikasle batek akats bat egiten duenean, akatsa nabarmentzea eta egitura zuzena behin eta berriro errepikaraztea.
- i Zorrotz-itzura edo asper-itzura ematea, eta erlojuari etengabe begiratzea.

Ez ahal dut neure eskoletan horrelakorik maizegi egingo!

Tutoreak trebatzeko saioetan, luze eman ohi dugu ikasle helduen taldeetan sortzen diren eguneroko arazo praktikoen aurrean nola erantzun eztabaidatzen. Teoria eta metodoei buruzko liburuetan ez dituzte, nahita noski, arazook aipatzen, baina batzuetan ikaragarri zailtzen diote irakasleari teoria praktikan jartzeko ahalegina. Ezagutu al duzue inoiz tankera honetako arazorik?

- a Eskola hasi behar eta ikasle gutxi batzuk baino ez dira iritsi. Gainerakoak banan-banan etorriko dira hurrengo orduan zehar.
- b Ikasle bereziki desatsegin bat daukazu gelan eta, bikote- edo talde-lana egokitzen denean, ez du inork harekin lan egin nahi.
- c Ikasle bat ustekabean hasi zaizu berriz etortzen hamar bat saio galdu ondoren.
- d Ikasle berak erantzuten du beti, besteei denborarik ere eman gabe, eta gutxi balitz, gainerakoen akatsak zuzendu ere egiten ditu.
- e Gelan etengabe elkarrekin demandan dauden ezkontideak (edo okerrago oraindik, dibortziatuak) dituzu.
- f Ikaskideren baten gustukoa zara eta maitasunezko adierazpenak eta keinuak egiten dizkizu.

Ez dugu, tamalez, erantzunik, baina irakasteko estrategian barietatea lantzen badugu, tutore-lanetik bikote-lanera maiz aldatuz eta bikoteak ere sarritan aldatuz, berankorren, noizean behingoen eta inork maite ez dituenen enbarazua kontrolpean izango dugu.

Irakaskuntza- -metodoak

Irakaskuntza-metodoetara itzuliz, Galesen metodo estrukturalak, komunikazio-metodoak eta metodo sugestopedikoak saiatu izan ditugu. Geure sisteman, ordea, metodo estrukturaletik hastea erabaki dugu, eta gero, ikasleek aurrerapenak egiten dituzten heinean, metodo libreagoak pixkanaka sartu. Metodoa komunikazioan eta sugestopedian oinarritzea ikasleari hizkuntz egiturak bere kabuz lantzen utzita, ez da gauza erraza, batez ere, ikaskide guztiek hizkuntza nagusi bera dakitenean; ikasgelan apenas izaten dugun beharrik (zoritxarrez) galesera *lingua franca* gisa erabiltzeko. Are gehiago, ikusi dugunagatik, ikaslearen hizketan ikas-prozesuaren hasieran sartzen diren akatsak oso zail dira gero zuzentzen eta, askotan, betiko geratzen dira. Hasiera-hasieratik eduki egituratuak ikasteak, aldiz, ziurtasuna ematen dio ikasleari ezezaguna zaion eremu batean, oinarritzko arauak ezagutzen dituelako ziurtasuna ere ematen dio eta, luzera begira, horrek onura handiak ekarriko dizkio. Hori kontuan izanik, egitura jakin baten inguruan ikasleak ikasiko dituen esaldi guz-

tiak eguneroko egoeretan erabiltzekoak izan daitezen ahalegintzen gara agur “behia marruka dabil larrean” tankerako esaldiei eta egitura berri guztiak bikoteka landutako egoera sinesgarrietan, elkarriketetan eta berrikuspen-ariketetan erabil ditzaten saiatzen gara.

Aurreneko ikasgaitan saiakera berezia egiten dugu ahoskatze-arauak ikas ditzaten. Soinuen eta letren arteko lotura, galeseraz, oso argia da, horregatik ikasleak ia edozein hitz ikusten duen lehenengo aldian, ahoskatze-arauak ezagutzen baditu, zuzen esateko gauza izango da. Hitzak zuzen ahoskatzeak hitz egiten lagundu ezezik, ulertzeko momentuan ere asko lagunduko dio. Izugarri gustatzen zait, ariketa gisa, ingelesezko hitz batzuen antza duten galeserazko hitzak ematea, hala nola “*call, march, fry ...*”. Soinua, ordea, oso desberdina dute galeseraz; ingelesdunak hizkuntza berriko hitzak ahoskatzeko betiko parametroak ezin erabil ditzaketela konturatzen dira, nahiz eta zenbaitek (ingelesez besterik ez dakitenek batez ere!) horretaz jabetzen denbora pixka bat behar izan.

Gaur egun ikasliburu berri bat idazten ari naiz, eta lehen gaietan eduki orokor hauek landu ditut (ingelesez):

1. gaia: I am, are you? (era adeitsua)
2. gaia: I do, do you? (era adeitsua)
3. gaia: we are, are you? (lagunarteko era)
4. gaia: I did/did you?
5. gaia: I have got, have you got?
6. gaia: may I have?
7. gaia: he/she is

Seigarren gaia amaitzerako, ikaslea bere egoera pertsonalari buruz hitz egiteko, azken egunetan zer egin duen azaltzeko eta hurrengoetan zer egingo duen esateko eta gauzak eskatzeko gai izango da. Komunikazio-estrategia baliagarriak dira horiek, baina horrez gain, ikasleak lehenaldiko eta orainaldiko aditz-formak ere ezagutuko ditu eta egitura horiei beste erabilera batzuk nola eman jakingo du; azken urrats hori komunikazio-metodo soil batek berez gertatzen dela suposatuko luke, eta askotan, kontuan ere ez luke hartuko.

Hasiberrientzako ikastaroak ezaugarri bat du: edozein aditz-formaren lehenengo eta bigarren pertsonak baino ez ditu, hasiera batean, lantzen, hirugarren pertsona aurreragoko mailetarako utzita. Aditz-pertsona guztiak aldi berean ikastea asko eskatzea da, eta nahasmena eragin dezake. Pertsonak banan-banan ikasteak asimilatzeke denbora ematen du, eta hirugarren pertsonara iritsitakoan ikasitakoa errepasatzeko aukera izango dugu.

Beraz, ikasgai berri bat irakatsi beharko banu, oinarritzko urrats hauek egingo nituzke:

- a** Ikasiko ditugun esaldiak bi hizkuntzatan azaldu.
- b** Lehen pertsonako esaldi bat osatu, ahal delarik hitz ezagunak erabiliz, ikasleak arreta ikasgaian bertan jar dezan (nazioarteko hiztegia erabiliko nuke, hala nola *coffi*, *tafarn*, *golff*...).

- c Esaldia denek batera errepikatzeko eskatu.
- d Esaldia arbelean idatzi.
- e Esaldia banaka errepikatzeko eskatu. Ikasle bakoitzak esaldia esan ondoren, irakasleak behar bezala errepikatuko du ikasleak esaldia zuzen esan ala ez, gainerakoak ez nahastu eta akatsei errepara ez diezaien.
- f Hiztegiko hitz bat aldatu, ikasleek egitura uler dezaten. Banaka errepikarazi.
- g Hiztegiko beste hitz egokiren bat proposatzeko eskatu eta arbelean idatzi.
- h Ikaskideak bikoteka jarri esaldiak elkarri esateko (gaur gauean golfetan ibiliko naiz, gaur gauean etxean geratuko naiz...): komunikazioa garbia da eta, gainera, baieztako esaldi batekin hasi izanaren abantailak erakusten ditu; galdera batekin hasi izan bagina, ezingo genituzke bikoteak osatu galderak eta baieztako esaldiakosatzen ikasi arte: bikotekideek ezingo liokete elkarri “Zer egin behar duzu gaur gauean?” galdetu, nola erantzun ere jakin arte.
- i Bikoteka egindako lan horretan arazoak izan dituenari laguntza eman, nabarmendu gabe zuzendu, banakoen galderei beste bikoteen lana oztopatu gabe erantzun eta, orokorrean, laguntasuna eskaini.
- j Galdera bat asmatu, eta gela osoari behin baino gehiagotan errepikatzeko eskatu.
- k Idatzi galdera arbelean eta, lehen bezala, banaka errepikatzeko eskatu.
- l Galderako elementuak nola aldatu erakutsi eta beste galdera batzuk egiteko eskatu; ikasle bakoitzaren ondoren, lehen bezala, galdera zuzen errepikatu.
- m Galderak berriro egiteko eskatu eta, oraingoan, hasieran ikasi duten egituraren arabera erantzun.
- n Beste bikote batzuk osatu eta gelan zehar ibil daitezela esan galderak eta erantzunak praktikatzen.
- o Galderak eta erantzunak arbelean utzi hasieran, baina gero ezabatzen joan egiturak buruz ikasi behar dituztela nabarmentzeko.
- p Ikasgaiaren hurrengo egiturarekin gauza bera egin.
- q Eta azkenik, baina ez lehenago, liburuan begiratu. Ikasleek aldezturik jakin behar dute ikasgai berri guztiak liburuan izango dituztela eta ikasten ari direnean oharrik hartu beharrik ez dutela. Liburuari begiratu gabe lan egiteak, gainera, arreta uneko egiturari jarrazten die aurrerago etorriko diren arazoei begira egon beharrean. Liburuko informazioak, beraz, saioan zer ikasi duten adieraziko die eta berri-kuspen azkar gisa ere balioko die.

Unitate bakoitzak, horrez gain, ikasitako egitura praktikatzeko ariketa desberdinak izango ditu, hala nola argazkiak, egitura testuinguruan era-

biltzen duten elkarriketa laburrak eta, idazmena praktikatzera baino areago, ikasitakoaren praktika indartzera zuzendutako etxerako idazlan labur bat.

Behar ditugun egiturak eta hiztegia zenbateraino dauzkagun memorian finkatuta, horrek erabakiko du, epe luzera, hizkuntza hori ondo ikasi dugun ala ez. Eta hori da, hain zuzen, gure praktika-metodo egituratuaren funtsa. Metodoa zuzena da: hasieran ingelesa erabiltzen dugu esan behar duguna eta erabili behar ditugun egiturak zehazteko, baina hortik aurrera ez dugu apenas itzulpenik erabiliko. Praktikatzekoan akatsak saihesteko, muga zehatz batzuk finkatuko ditugu eta, muga horien barruan, egiturak ikasgela-, bikote- eta talde-lanerako ariketa egituratu batzuetan *erabiltzea* izango da kontua, horretarako galdetegiak, elkarriketak, argazkiak, jokoak eta abar erabiliz. Metodoaren mamia errepikapena da, baina ahaleginak egin ohi ditugu ariketak askotarikoak eta erabilgarriak, eta ikasle guztiek egiteko modukoak izan daitezen. Konbinazio hori da, hots, hizkuntza mugatu, aurkezpen-modua aldatu eta ikaslearen gogo berotzea, gure metodoaren ardatza.

Memoria indartzen laguntzen duen beste elementu bat, elkarriketetan umorea erabiltzea da. Ez dakit zenbateraino itzul daitekeen umorea kultura batetik bestera, baina saiatuko gara. Nire ikasliburu berriaren lehenengo gaian, jendea agurtzen eta nork bere burua aurkezten irakasten diegu ikasleei (edozein hizkuntz libururen aurreneko gaiak egiten duen bezala; berrikuntzarik ez, beraz!), baina elkarriketa bi aiton zahar-zaharren artean denez, grabatutako hizketa ezin motelagoa da eta ikasleek, hizkuntza berri horretan entzuten duten lehen elkarriketa izanik, benetan estimatzen dute. Honelako zerbait da:

- A. Egun on, Dafydd, zer moduz?
- B. Ondo, eskerrik asko, baina...
- A. Gareth naiz, Llandudno-koa, gogoratzen?
- B. Gareth Llandudno-koa? Barkatu, baina...
- A. Elkarrekin egin genuen lan Titanic-en, 1912an
- B. A bai! Gareth Llandudno-koa! Zer moduz?
- A. Ondo, eskerrik asko. Zer moduz?
- B. Ondo, eskerrik asko. Zertan zabilta orain?
- A. Erretiratuta nago. 1952an utzi nion lanari. Zu ere erretiratuta zaude?
- B. Ez, New York-en ari naiz lanean.
- A. Zertan?
- B. Pilotu naiz.

Ikasliburuko hurrengo elkarriketa gustatzen zait gehien. Erraza eta, aldi berean, oso tristea:

- A. Non bizi zara?
- B. Bangor-en
- A. Norekin bizi zara?
- B. Familiarekin
- A. Non egiten duzu lan?
- B. Familiaren lantegian Bangor-en

- A. Norekin egiten duzu lan?
 B. Familiarekin
 A. Nora joango zara oporretan?
 B. Caernarfon-era*
 A. Norekin joango zara?
 B. Familiarekin

** (Bangor-etik 10 km-ra)*

Elkarrizketa horietako umorea lagungarria da, dudarik gabe, gako-esaldiak gogoan hartzeko. Barrea da, zalantzarik gabe, erlaxatzeko eta asimilatzeke modurik azkarrena eta ikasteko baliabiderik ahaltsuena.

Baina, ez pentsa gure ikasleek hitz egiteko askatasunik ez dutenik saio bakoitzaren hasieran, taldeka hitz eginez nork bere gauzak kontatu ditzan eta ikasi dituzten hizkuntza baliabide guztiak erabil ditzaten eskatzen diegu. Hitz egitean zer esateko gauza diren, eta ez, zer esan nahiko luke ten pentsatu behar dutela azpimarratzen diegu; halaz ere, askatasun osoa dute tarte horretan, eta zuzendu ere ez diegu egiten. Konfiantza hartzen joateko modu egokia da, eta egin dituzten aurrerapenen jabe izateko aukera ematen die. Tutoreak bakoitzaren egoera edo interesei dagokien hiztegi berezia emateko aprobeitza dezake, besteentzat oraindik erabilgarria ez izan arren. Ikasgai bakoitza hasi aurretik, ikasitako azken egitura errepasatu ohi dugu ez da pentsatu behar atzo zekiten egitura bat, gaur ere badakitenik! Ariketa egokien eskuliburu bat ere prestatu dugu tutoreentzat; ezer berririk ez, hemen ere: asmakizun-ariketa pila bat, errepikapenerako primerakoak baitira, eta merkatu-ikerketarako edo iritzi-bilketarako ariketa pila bat, galdera berberak behin eta berriz errepikatzeke ere primerakoak. Lehiaketak ere oso onak dira egiturak errepikatzeke, eta lehiakortasuna pizteaz gain, interesa sortarazten dute; erantzunak asmatzea, hala ere, zortearen arabera, eta ez ezagutza orokorraren arabera izatea komeni da; bazter utziko ditugu horrela ikaskideen artean egon daitezkeen hezkuntza maila desberdinak. Hona adibide bat:

Ondoko zeinek izango du pisurik handiena, batez beste, jaiotzean? Germaniarrek, amerikarrek edo pigmeoek. Zein da iparralderen dagoen hiria? Florentzia, Marseilla edo Donostia.

Galdera horien erantzunak asmatzea ez da, seguru asko, ezagutza arruntaren arabera izango zortearen arabera baizik, eta horregatik ikasle kaskarrek ikasle bikainek bezain ongi edo hobeto asma ditzakete: ez dago bihotz-berogarriagorik! Bada errepikapena asko erabiltzen duen beste jolas bat, edozein mailari egokitu eta lorpen-maila desberdinak bidera ditzakeena, eta horrez gain guztioi gustatzen zaiguna, detektibetara jotzea, alegia. Bart gauean zorigaitzeko zer bait gertatu da eta detektibe bat, tutorea, kasu honetan, gertatuari buruzko galderak egitera etorri da; galderei erantzun behar dien ustezko gaizkilea ikasgela osoa da. Ikaskide guztiak pertsona bakarra izango dira eta koartada bera izango dute. Besteek emandako erantzunak norberak ahalik eta hobeto gogoratzea da kontua: galderak behin eta berriz errepika daitezke, baina gero eta zailagoa izango da dena gogoratzea, gero eta informazio gehia-

go edukiko dugulako. Tutoreak denbora-tarte bat ezarriko du, hamar minutukoa edo; ikaskideak tarte horretan koartadari eusteko gauza badi-ra, detektibeak askatu egingo ditu, bestela, hiru ordutarako etxeko lanak ezarriko dizkie (adi egoteko pisuzko arrazoia, bai horixe!). Horrenbestez, ikaskideek bat egingo dute tutoreak irabaziko ez diela ziurtatzeko, eta horrela, denok ezin gusturako.

Behin oinarrizko egiturak benetan ondo finkatu ondoren, komunikazio-metodoaren oinarrien aurrean jarrera baikorragoa izango dugu; sugestio-pedialak ere zeresan handia izan dezake ikasleei ezaguerak asimilatzen eta konfidantzaz hitz egiten laguntzeko orduan. Mundu osoko tutoreek seguru asko egingo duten bezala, guk ere irakasteko modu desberdinak nahastu eta bakoitzetik zerbait aukeratzen dugu; goiko mailetan, hala ere, gramatika abiapuntu hartu baino nahiago izaten dugu elementu edo funtzio batetik abiatu. Gure lan-unitate bakoitza antzezle profesional batzuek grabatutako elkarrizketa baten inguruan garatzen da. Ikasleek grabazioa entzuten duten lehen aldian, pertsonaia bakoitzaren egoera eta rolaz eztabaidatu behar dute, esanahia zehatz-mehatz ulertu beharrik gabe. Bigarren aldiz entzun eta gero, ulertu dituzten hitz, esaldi edo esamoldeak errepikatuko dituzte eta arbelean idatziko ditugu. Entzunaldi bakoitzean zulo batzuk beteko ditugu, eta ezezagunak zaizkien hitz eta egiturak landuko, arbelean elkarrizketa osatu arte. Ondoren, elkarrizketa bikoteka irakurriko dute, behin eta berriz; nik, bitartean, hitz eta esaldi solte batzuk ezabatuko ditut ikasleen memoria behartzeko. Arbela erabiliz, nahi dudana neurrian behartu ditzaket ikasleak, mailaren arabera, elkarrizketaren aurrean eman dituzten erantzunen arabera, eta eguneko umore eta gogoaren arabera. Hurrengo urratsa antzeko gaiei buruzko rol-jokoak ematea izango da: nahi dituzten formak erabil ditzakete, baina gehienetan oso baliagarria zaie landu duten elkarrizketa horretako ereduak.

Entzumena

Gure ikasleen entzumena hobetzeko ahaleginak egiten ari gara azkenaldi honetan. Ez dago esan beharrik heldu askori entzumenezko ariketa tradizionalak zailak iruditzen zaizkiela. Nola ez bada, entzun eta, aldi berean, hitz guztiak ulertu, informazio osoa gogoan hartu, galdera irakurri, entzundako informazioaren eta egindako galderaren arteko lotura aurkitu eta galderari erantzun, dena batera egin nahi badute! Egoera hori gainditzeko, hizkuntz irakasle askok laukitxoak erabili ohi dituzte ikasleak behar duen informazioa bertan adieraz dezan, hitzez hitz ulertzen eta analizatzen saiatu beharrean. Hala eta guztiz ere, entzumen-ariketa horiek urduritasuna eragin ohi dutenez, ikasle kaskarrenei laukitxoak betetzeko behar duten gako-informazio hori ere itzuri egiten zaie sarritan. Azken aldi honetan, ikasleak are gustagarriago zaion ariketa bat ari gara finkatzen; orain arte emaitza onak eman dizkigu. Hona hemen:

- a** Grabazioko sei edo hamar hitz ezezagun aukeratu eta arbelean idatzi.
- b** Hitzon esanahia azaldu, eta behin baino gehiagotan landu.
- c** Arbela estali eta zein hitz gogoratzen dituzten galdetu.
- d** Hitz horien esanahia errepasatu, zein hitzez ari garen badakitela ziurtatzeko.

- e Estalkia kendu hitzak erakusteko.
- f Grabazioa entzunarazi eta, arbeleko hitzen bat entzuten duten bakoitzean, keinu fisikoren bat egiteko eskatu (adibidez, besoa jaso, hanka altxatu... Saioren bat egin grabazioa entzun aurretik, inhibizioak uxatzeko).
- g Grabazioa entzun. Ikasleak arbeleko hitzak entzuten eta dagokion keina egiten hain arduratuta egongo dira, ezen ez diote edukiari erreparatuko eta ez dira aztertzen saiatuko.
- h Lehen ariketa ondo burutuko dutenez, grabazioa bigarren aldiz entzuteari askoz jarrera positiboago batez ekingo diote.
- i Grabazioan maiz agertzen diren beste elementu batzuk ere, zenbakiak, leku-izenak... idatzi. Zerrenda berriko hitz bat entzutean keinuak berriro egiteko eskatu.
- j Hirugarren txandan, zerrendako zenbaki edo leku-izenen esanahia aztertzeko eskatu. Konturatu ere egin gabe eta ia ahaleginik gabe esanahiaren mamia bereganatuko zuten, eta hirugarren entzunaldi honek dagoeneko ulertu dutena egiaztatze baina ez die balio izango.
- k Ikasleak taldetan ipini eta (j) ariketa azterrarazi; ulertu duten gainerako guztia biltzeko eskatu.
- l Grabazio berean oinarrituta, entzumen-ariketa tradizional bat emango diegu etxean egiteko. Oso erraza irudituko zaie, baina hitz berriak finkatze eta edukia hobeto ulertzeko balioko die.

Ikasleak beti kexatu izan zaizkigu, prestatzen dizkiegun entzumen-ariketak zailgiak direla, hitzunek azkarregi eta itxi samar hitz egiten dutela eta galderak erantzunezinak direla esanez. Grabazioak ez ditugu aldatu, baina aipatu dugun metodoa erabiltzen hasi garenetik askoz kexa gutxiago jasotzen ditugu eta ikasleek hobeto erantzuten dute grabagailua ikusten dutenean.

Goiko mailak

Goi-mailako ikastaroetan entzumena eta irakurmena garatzeari ematen diogu garrantzi berezia eta, horregatik, urri diren arren, galeserazko telebista-programak, irratsaioak eta egunkariak aprobeitza ditzaten animatzen ditugu. Irakurkizun eta entzunkizun diren lanak ere elkarriketarako aitzaki erabiltzen saiatu ohi gara, teknika pasibo horietan aurkitu dituzten egiturak eta hiztegia erabili eta asimila ditzaten. Horretarako, bikote-kide bakoitzari irakurkizun edo entzunkizun bat eman eta, aukeran, ondoko ariketetako bat eginarazten diogu:

- a Nork bere informazioa besteari adierazi.
- b Istorio beraren bi zatiak entzun, istorio osoa ezagutzeko.
- c Istorio beraren bi bertsioren arteko desberdintasunak aurkitu (egun berean, baina ordu desberdinetan grabatutako albiste-emankizunak erabil daitezke).

Oso interesgarria izaten da, informazioa elkarri adierazte horren ondorioz erabakiren bat hartu behar izaten dutenean, elkarriketa bide estuago

batetik edo eramateko. Esate baterako: hirukoteak osatu eta kide bakoitzari lanpostu batera aurkeztu diren hautagaietako baten eskaera eman irakur dezan, edo grabatu diren elkarrizketetako bat, entzun dezan, gero beste taldekideei hautagai hori deskribatu eta hiruren artean bat aukeratzeko. Hirukote bakoitzak hartu duen erabakia beste hirukoteenarekin alderatuko dute; talde bakoitzak bere erabakia arrazoitu beharko du. Antzeko beste ariketa batean, hirukoteko kide bakoitzak bi edo hiru albiste irakurri edo entzun eta beste taldekideei kontatuko dizkie. Hirukoteak, orduan, telebistako albiste-emankizun bat prestatu beharko du eta lehentasuna zein albisteri emango dion erabaki beharko du. Oraingoan ere, erabakiak alderatu eta talde bakoitzak albiste nagusiari horrelako garrantzia zergatik eman dion arrazoitu beharko du.

Oso gustuko dut, niri gertatutako zerbaiti buruzko istorioak kontatzea, paperean nahiz grabatuta. Horrelakoetan ere, hiruko taldeak osatzen ditut eta taldekide bakoitzari istorio bat eman ohi diot irakurri edo entzun dezan. Istorioak elkarri kontatzen dizkiote (hirugarren pertsona noski, hori bai praktika ona!), eta denen artean istorioak egiazkoak diren ala ez erabaki beharko dute. Hirurak egiazkoak izan daitezke, edo bi bakarrik, edo bat bera ere ez. Zuei ere hiru istorioren laburpena egingo dizuet, ea zein iruditzen zaizuen sinesgarria, sinesgarririk bada!

- Duela 20 urte inguru, Kanadako mendi arrokatsuetan autostop egiten ari nintzelarik, 70 urteko emakume zahar batek hartu ninduen eta, jatorriz, Galeseko nire herri bertsukoa izatea suertatu zen.
- Duela 25 urte inguru, Diana Ross abeslari amerikarraren emanaldi batera joan nintzen eta “*Reach Out and Touch Somebody’s Hand*” abestia (“Besoa luzatu eta norbaiten eskua hartu”) kantatu zuenean, jende artean sartu eta, abesten ari zelarik, eskua hartu zidan.
- Txikitan, sukaldean gosaltzen ari nintzen egun batean, ahuntz bat leihoa bat-batean zeharkatu eta mahai gainean pausatu zen, familia osoa beira-zatiz estaliz.

Normalean zehaztasun gehiago ematen diet ikasleei, baina laburpenak izan arren, bat etorriko zarete nirekin, ariketa horren bidez gogoz eztabaidatu eta beraiei ere gertatutako antzeko gauzak elkarri kontatzeko aukera ezin hobea dutela, komunikazioa maila natural eta eraginkorrean erabiliz.

Amaiera

Saio honen helburua galeserako tutore baten laneguna nolakoa den gutxi gorabehera erakustea izan da, besterik gabe, teoria zoragarriarik eta berrikuntza berezirik gabe; hala ere, arlo praktikoetako zenbait zuetako batzuei ezagunak egingo zitzaizkizuelakoan nago. Galesen aurrerapauso handiak egiten ari gara, baina gurea ez da ezer hemen erdietsi dituzuen maila eta aurrerakuntzen aldean. Jeloskor gaude, baina inspirazio-iturri ere bazarete guretzat, eta eginahal guztiak egingo ditugu zuen ereduari jarraitzeko. Arrakastarik handiena opa nahi dizuet euskararen hurrengo milurtekoranzko ibilbidean.

Itzultzailea: Ane Goenaga